

A·08 Ezagutu eta esperimentatu mugikorrerako euskarri bat fabrikatzeko prozesua

Kurtsoa/Maila

1. Batxilergoa
2. Batxilergoa

Datak

2026 Azaroa - 2027 Maiatza

Ikaskuntza-arloak

Teknologia

Jarduera formatua

Enpresara bisita

Hizkuntza

Euskara, gaztelania

Irismen geografikoa

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa

Jarduera ematen duen erakundea

IMH Campus

Ikasleek IMH Campus enpresa bisitatuko dute eta mugikorrerako euskarri bat elkarlanean ikertu eta diseinatzeko erronkan parte hartzeko aukera izango dute. Ondoren, prozesu osoa nolakoa den ikusiko dute: diseinua, fabrikazioa eta muntaketa.

STEM Deskribatzaileak

STEM 1

STEM 2

STEM 3

STEM 4

STEM 6

Baliabideak

Baliabide materialak

Gelan alde zurratik eta jarduera gauzatzen den bitartean lan egiteko: gelak ordenagailua eta proiektagailua izan beharko ditu.

Enpresara bisita

IMH Campus-eko instalazioak. Beharreko makineria eta teknologia dituzte.

Baliabide ekonomikoak

Enpresara joan-etorriak.

Informazio gehiago

imh.eus/eu?set_language=eu

A·08 Ezagutu eta esperimentatu mugikorrerako euskarri bat fabrikatzeko prozesua

02

GARAPENA

Prestaketa fasea

Sarrera: adituak ikasleei azalduko die nola bizi izan dugun bilakaera industrial, Teknologia gelan landutakoa erreparatu eta osatzeko bideo baten laguntzaz.

Erronka lantzea: ondoren, adituak adibide bat proposatuko die ikasleei, egunerokotasunean bizi duten beharra (euskarri mugikorra) eta teknologiaren bidez konponbide bat beharko duena. Ikasleek taldeka pentsatu beharko dute nola diseinatuko luketen beren euskarria eta zer material eta makina erabiliko lituzketen hura egiteko.

Bisita: ikasleek ikusiko dute nola diseinatuko, fabrikatuko eta muntatuko den euskarria errealitatean, eta nola konbinatzen diren teknologiak emaitza lortzeko.

Balorazioa: erronka amaitzean, ikasleei balorazioa eskatuko zaie, ondorioak eta iritziak jasotzeko.

Ikasgelan integrazio fasea

Ikasleek arazo-egoeran edo proiektuan ikasitakoa aplikatuko dute, eta jarduera baloratuko dute.

CURRICULUMAREKIN LOTURA

Jardueran lantzen diren curriculum-ikaskuntzak:



Teknologia

- Industria-teknologia: materialak eta fabrikazioa. Diseinu-teknikak eta propietateak eta jasangarritasuna aldatzeko eta hobetzeko tratamenduak.
- Transmisioak eta teknologia mekanikoa.
- Transmisio-sistemen zinematika eta dinamikaren oinarriko kontzeptuak.
- Mekanizazio-sistemak: bisitaren bidez, ikasleek ikusiko dute nola diseinatuko, fabrikatuko eta muntatuko den euskarria errealitatean, eta nola konbinatzen diren teknologiak emaitza lortzeko. In situ ikusiko dituzte berrikuntza-tailerra eta fabrikazio aditiboko guneak.